



AULA JORDÁ GELA

OSE + Musikene

ORKESTRA-IKASKETEN IKASKETA ARTISTIKOEN MASTERRA
(hari instrumentuak)

MASTER DE ENSEÑANZAS ARTÍSTICAS EN ESTUDIOS ORQUESTALES
(instrumentos de cuerda)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
POLITICA LINGUISTICA Y CULTURA

AULA JORDÁ GELA

Musikene, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin, Estatuko orkestra ikasketen lehenengo master ofiziala jarriko du abian

2015-16 ikasturtetik aurrera hogeita hamar hari instrumentistek estatuan Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak homologatutako Orkestra Ikasketa Master bakarra (hari espezialitatean) egin ahal izango dute. Ikasketa planak barne hartuko ditu, batetik, aktibo dauden profesionalen eskutik eskolak bakarka eta taldeka, eta bestetik orkestran praktikak, azken hori Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin elkar lanean. Hezkuntza Ministerioaren oniritzia izan duen lehenengo orkestra masterra izan da, eta tituludunei gaitasuna emango die bai orkestra interpretaziorako, bai eta ikerketari lotutako beste ikasketa batzuk jarraitzeko ere. Izena emateko epea datorren otsailean irekiko da.

JATORRIA. 2012ko otsailaren 23an MUSIKENE eta EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOAK LEHENTASUNEZKO LANKIDETZA HITZARMEN INSTITUZIONALA sinatu zuten. Honen bidez, bi erakundeek lankidetzaharreman estu bati ekin zioten. Hitzarmen honen izena **AULA JORDÁ GELA: OSE+Musikene** da. Hitzarmen honen puntuetako batek orkestra-jarduerako instrumentu master bat bultzatzeko konpromezua jasotzen zuen.

Konpromezu honi jarraipena emanez, Musikene ORKESTRA-**IKASKETEN IKASKETA ARTISTIKOEN MASTERRA**ri (HARI INSTRUMENTUAK) zegokion curriculum proiektua eta txostena garatu zuen. Honetan ezin baliotsuagoa gertatzen da Euskadiko Orkestraren parte hartzea. Joan zen 2014ko ekainaren 2an master hau Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak homologatu zuen. Beraz, **master ofizial**tzat jotzen da lehenbiziko **ORKESTRA-**IKASKETEN IKASKETA ARTISTIKOEN MASTERRA (hari instrumentuak)****. Master honen alor akademikoak Musikeneren ardurapean daude eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren lankidetzan du; masterra bi erakundeek sustatu dute.

HELBURUA. Master hau sinergien batura da, goi mailako tituludun musikariei profesionalki lanean hasteko bidea errazteko beren baliabideak haien esku jartzen dituzten bi erakundeen sinergiana, alegia: **Musikene** Ikasketa Plan oso eta aitzindari baten baitan, bakarkako zein taldeko ikastea orkestra sinfoniko profesional eta prestigiodun batean jardutearekin uztartzen duen heziketa

bermatzen du. Horretarako, interpretatzaile gisa ere aritzen den goi mailako kualifikaziodun irakasleagoa izango du; **Euskadiko Orkestra Sinfonikoa**, aldiz, orkestra-jarduerarako kalitatezko heziketa-baliabide gisa aurkezten da, honela bere gizarte-ekintzarako bokazioa berretsiz, oraingoa hezkuntzaren arlotik.

ABIARAZTEA. ORKESTRA-IKASKETEN IKASKETA ARTISTIKOEN LEHENBIZIKO MASTERRA (hari instrumentuak) 2015/2016 ikasturtean abiatuko da. 60 kredituren balioa izango du (60 ECTS), horietatik 40 (ECTS) heziketa praktikoari dagozkio, irakaspenera aplikatuzko osagarri batekin, eta 20 (ECTS) orkestra-jarduerari dagozkio. Azken jardura honentzat, eta profesionalki aritzeagatik, ikasleagoak ikasketa-poltsa bat eskuratuko du. Master ofizial honetarako matrikularen zenbatekoa **6.700 eurotakoa izango da. **Behin-behineko izen emateko epea 2015eko otsailean** zabalduko da.**

ORKESTRA IKASKETEN LEHENBIZIKO MASTER OFIZIALA.

2015/2016 ikasturtea

60 KREDITU: 40 ECTS heziketa teoriko-praktikoa Musikenen eta 20 ECTS orkestra-jardura Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin.

30 plaza: Hautaketa-prozesua.

Behin-behineko izen ematea: 2015eko otsaila

Zenbatekoa: 6.700 euro.

Informazio gehiago: www.musikene.eus webgunean

2014ko abendua.

AULA JORDÁ GELA

Musikene, con la Orquesta Sinfónica de Euskadi, lanza el primer máster oficial de estudios orquestales del Estado

A partir del próximo curso 2015-16, treinta instrumentistas de cuerda podrán cursar en Musikene el único máster de Estudios Orquestales (especialidad de cuerda) homologado por el Ministerio de Educación, Cultura y Deporte. El plan de estudios combinará las clases individuales y colectivas bajo la tutela de profesionales en activo con la práctica orquestal en colaboración con la Orquesta Sinfónica de Euskadi. Es el primer máster de orquesta que ha obtenido el visto bueno del Ministerio de Educación y capacitará a sus titulados tanto para la interpretación orquestal como para la realización de posteriores estudios oficiales ligados a la investigación. El plazo de preinscripción se abrirá el próximo mes de febrero.

EL ORIGEN. El 23 de febrero de 2012 MUSIKENE y la ORQUESTA SINFONICA DE EUSKADI firmaron un CONVENIO INSTITUCIONAL DE COLABORACIÓN PREFERENTE por el que ambas instituciones daban inicio a una estrecha relación de colaboración. Este convenio lleva el nombre de **AULA JORDÁ GELA: OSE+Musikene**. Uno de los puntos de este convenio recogía el compromiso de impulsar la creación de un máster instrumental de práctica orquestal.

Como continuación a este compromiso, Musikene desarrolló un proyecto curricular y su correspondiente memoria de un MÁSTER EN ENSEÑANZAS ARTÍSTICAS DE ESTUDIOS ORQUESTALES (INSTRUMENTOS DE CUERDA) en el que resulta inestimable la participación de la Orquesta de Euskadi. El pasado 2 de junio de 2014 dicho máster fue homologado por el Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, lo que supone la consideración de **máster oficial** como **PRIMER MASTER DE ENSEÑANZAS ARTÍSTICAS EN ESTUDIOS ORQUESTALES (instrumentos de cuerda)**. Este máster liderado por Musikene en sus aspectos académicos, cuenta con la colaboración de la Orquesta Sinfónica de Euskadi y es promovido conjuntamente.

EL OBJETIVO. Este máster es una suma de sinergias, la de las dos instituciones que ponen sus medios al servicio de músicos con titulación superior para facilitar su incorporación al mundo profesional: **Musikene** ofrece un máster que garantiza una formación que combina el aprendizaje individual y colectivo dentro de un completo y pionero Plan de Estudios con la práctica de sus estudiantes en una formación sinfónica profesional y de prestigio. Para ello, contará con un profesorado altamente cualificado y en activo como intérpretes; por su parte, la **Orquesta Sinfónica de Euskadi** se presenta como un recurso formativo de práctica orquestal de calidad y revalida así su vocación social, ahora también desde el ámbito formativo.

LA PUESTA EN MARCHA. El **PRIMER MASTER DE ENSEÑANZAS ARTÍSTICAS EN ESTUDIOS ORQUESTALES (instrumentos de cuerda)** se pondrá en marcha en el **curso 2015/2016**. Tendrá un reconocimiento de **60 créditos (60 ECTS)**, de los que 40 (ECTS) serán de formación práctica con un complemento de enseñanza aplicada y 20 (ECTS) de práctica orquestal. Para esta última, y en virtud de su incorporación a la actividad profesional, el alumnado obtendrá una bolsa de estudios. La matrícula de este Máster oficial tendrá un **importe de 6.700 euros**. La **pre-inscripción** se abrirá el próximo mes de **febrero de 2015**.

PRIMER MASTER OFICIAL DE ESTUDIOS ORQUESTALES.

Curso 2015/2016

60 CREDITOS: 40 ECTS de formación teórico-práctica en Musikene y 20 ECTS de práctica orquestal con la Orquesta Sinfónica de Euskadi.

30 plazas: Proceso de selección.

Pre-inscripción: Febrero de 2015

Precio: 6.700 euros.

Más información: www.musikene.eus